**BI MILA ETA HAMALAUKO URTARRILAREN HAMAHIRUAN ETXARRI ARANAZKO BATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.** /ACTA DE LA SESIÓN PLENARIA ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO DE ETXARRI ARANATZ EL TRECE DE ENERO DE DOS MIL CATORCE

2014ko urtarrilaren 13an, 20:00etan, Etxarri Aranazko Udalak ohiko Osoko Bilkurara arauzko moduan deitu, eta lehenengo deian osatu da, JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA alkatea mahaiburua dela, eta honako zinegotzi hauek bertaratuak:

En Etxarri-Aranatz y casa consistorial, siendo las veinte horas del día 13 de enero de dos mil catorce se reúnen los concejales en sesión plenaria ordinaria, tras haber sido convocada la misma en forma legal, bajo la presidencia de la Sra. Alcalde-Presidente D. Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena y con la asistencia de los siguientes concejales:

**Bertaratu direnak** / Asisten:

**AITOR KARASATORRE MUGURUZA jn.**
**ENEKA MAIZ ULAYAR and**
**IÑIGO LAZKOZ LEKUONA jn.**
**KITZ MENDIOLA BARANDALLA and.**
**IKER MARIÑELARENA GALARZA jn. (6. puntua hasi baino lehen sartu da)**
**MIGUEL ANGEL GOÑI IXURKO jn.**
**MAIDER GOÑI ERRAZKIN and**
**ARANTZA ARTIEDA IGOA**
**JUAN ANTONIO EXTREMERA APESTEGIA jn.**

**Bertaratu ez direnak** / No asisten:

**EDURNE IGOA LIZARRAGA and**

**Idazkaria** /Secretaria: Silvia Gonzalo Etxarri

Alkateak azaldu du, aurreko bileran eskatu zen bezala, gaurko bilkuran Koldo Azkonak, Sakanako Mankomunitateko itzultzaileak, ahozko itzulpena egingo duela.

A continuación el alcalde informa que tal y como se solicitó, en la sesión de hoy se encuentra presente el traductor de la Mancomunidad de Sakana, Koldo Azkona, quien realizará las traducciones.

Bilkura grabatuko da.

Se grabará la sesión.

**1.- AURREKO AKTAK/** Actas anteriores

Alkateak bilkurari hasiera eman dio, eta deialdiarekin batera banatu zen 2013ko abenduaren 16an egindako Osoko Bilkuraren

El Sr. Presidente levanta la sesión, y se aprueba el acta de la sesión celebrada el 16 de diciembre de 2013 repartida junto a la convocatoria tras la corrección del

akta onartu da. Aurretik gelen tasan eta Lurdes Razkin Igoaren abizenean zuzenketak egin dira.

error en la tasa aulas y el apellido de Lurdes Razkin Igoa.

**2.- 2013KO AURREKONTU ALDAKETA BERRESTEA / Ratificación de Modificación presupuestaria**

Idazkariak Alkatetzaren 297. Ebazpenaren, 2013ko abenduaren 31koaren, berri eman du. Osoko Bilkurak aho batez berretsi du.

"Aurtengo aurrekontuan, ustez akats batengatik, <581 69001. BASOKO HOBEKUNTZA > partidan 45.457,89 € baino ez ziren onartu. 2013. urterako aurrikusitako esleipenen zenbatekoa aurrekontuan "gaizki" onartutakoa baina handiagoa zela konturatu dira orain, 4.472,26€ falta baitira. Azken esleipena egin zenean, irailean, kontu-hartzailerik ez zegoen eta akatsa detektatu gabe zegoenez, partidan diru nahikoa zegoela uste zen.

Hau horrela, akatsa moldatzeko, egokia da espedientea. Aurrekontuko <581 69001. KONTINGENTZIA FUNTSA> izeneko partidatik 4.472,26€ hartuko dira.

Premia dagoenez, onespena 2013an izateko, eta kontu hartzailea eta idazkaria prozedura arazoak azalduta, ALKATEAK HONAKO HAU EBATZI DU:

1.- 2013ko aurrekontu aldaketa hasiera batez onestea: 2013/05 Kredito transferentzia.

2.-Espedienteak idazkaritzan egonen dira ikusgai hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

3.-Hurrengo Osoko Bilkurara bidaltzea honek berres dezan."

*La Secretaria informa de la resolución de Alcaldía número 297 de 31 de diciembre de 2013 la cual es ratificada por unanimidad por el Pleno.*

*"En el presupuesto del año 2013, por error, se aprobó un crédito de tan solo 45.457,89€ para la partida <581 69001 BASOKO HOBEKUNTZA>. Teniendo en cuenta las adjudicaciones previstas para este año, se han dado cuenta que el importe de las mismas es superior al aprobado en el presupuesto, ya que faltan 4.472,26€. Por ello, se aumentará este crédito reduciendo la partida de fondo de contingencias. En la última adjudicación, en el mes septiembre, el puesto de intervención no estaba cubierto y no se había detectado el error, por lo que se pensaba que había crédito suficiente.*

*Por todo lo expuesto, para la subsanar del error, se realizaría la siguiente modificación presupuestaria (transferencia de crédito):*

*Ante la urgencia existente debido a que la aprobación debe realizarse en el año 2013, oídas la secretaria y el interventora respecto a cuestiones de procedimiento, el ALCALDE RESUELVE:*

*1.-Aprobar inicialmente la modificación presupuestaria 05/2013: Transferencia de crédito.*

*2.-De conformidad con lo dispuesto en el artículo 33 del Decreto Foral 270/1998, de 21 de septiembre, que desarrolla la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra, en materia de presupuestos y gasto público, el expediente se expondrá en Secretaría durante quince días hábiles, a contar desde el siguiente al de publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.*

*3.-Trasladar la presente resolución al Pleno*

*para su ratificación oportuna."*

| 2013/05 | | | Gastua / Gasto | Zenbatekoa/ Importe |
|---|---|---|---|---|
| | 81 | 69001 | BASOKO HOBEKUNTZA / MEJORA MONTE | 4.472,26 |
| | | | **GUZTIRA/Total** | **4.472,26 €** |
| | | | | |
| | | | **Finantzaketa / Financiación** | **Zenbatekoa/ Importe** |
| | 32 | 280 | KONTINGENTZIA FUNTSA / FONDO DE CONTINGENCIAS | 4.472,26 € |
| | | | **GUZTIRA** | **4.472,26 €** |

## 3.- 2014KO ZINEGOTZIEN ORDAINSARIAK / Retribuciones a cargos electos para el 2014

Alkateak aurreko urteetako akordio berdina proposatu du.

"Ikusirik 20/2012 FORU LEGEA, abenduaren 26koa, Toki Ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituena, 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako; Idazkariak informatzen du legeko 15. artikuluko g paragrafoan arautzen direla konpentsazioak deuseztatu edo eten eginen diren kasuak.Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 75. artikuluan eta Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 13. artikuluan agindutakoan oinarriturik, Udaleko kontu hartzailea kontsultaturik, Udalaren ezaugarri bereziei erreparatu ondotik, udalbatzak aho batez erabaki du:

Lehena.-Alkateak dedikazio osoa izatea onestea.

Bigarrena.-Alkateak lanaldi osoa izanen du, hau da, 35,40 ordu astean. Bestalde, 29.374,24 euroko soldata gordina jasoko du urtean, hamabi hilabetetan banatua, eta aparteko bi paga, 2.098,16 euro gordinekoa bakoitza. Zenbateko horiei legeak agindutako atxikipenak aplikatuko zaizkie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Gizarte Segurantzako langile kuota kontuan izanik. Era berean, Udalak bere gain

*El Sr. Alcalde propone el mismo acuerdo que años pasados.*

*"A la vista de lo establecido en la Ley Foral 20/2012, de 26 de diciembre, por la que se establecen la cuantía y la fórmula de reparto del Fondo de Participación de las Haciendas Locales en los Tributos de Navarra por Transferencias Corrientes para los ejercicios presupuestarios de 2013 y 2014; advertidos por la secretaria de las anulaciones por incumplimientos regulados en la letra g del artículo 15 de la citada ley foral; con base a lo preceptuado en el artículo 75 de la LBRL y artículo 13 de ROF; estudiadas las especiales características del Ayuntamiento, consultado el interventor municipal, el Pleno acuerda por unanimidad:*

*Primero.-Aprobar la dedicación exclusiva del Alcalde.*

*Segundo.-El Alcalde tendrá jornada completa, es decir, 35,40 horas semanales, con una cuantía a percibir de 29.374,24 euros de sueldo bruto anual. Se dividirá en doce mensualidades más dos pagas extras, por importe de 2.098,16 euros brutos cada una de ellas. A estas cantidades se aplicarán las retenciones que legalmente correspondan en concepto de Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y cuota obrera de la Seguridad Social, asumiendo el Ayuntamiento el pago de la cuota empresarial..*

hartuko du enpresa kuota ordaintzea.

Alkatearen ordainsariak urtero eguneratuko dira KPIren igoeraren arabera, organo eskudunak bestelako igoerarik ezartzen ez badu.

Hirugarrena.-Gizarte Segurantzaren Diruzaintzako Lurralde Bulegoan eskatzea Gizarte Segurantzan dagokion araubidean sartzeko edo alta emateko, legediak agindutako moduan.

Laugarrena.-Alkatearen liberatzeari buruzko erabaki honek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hartuko du indarra.

Bosgarrena.- Dedikaziorik ez duten gainerako hautetsiek zenbateko hauek jasoko dituzte organo kolegiatuetara joateagatik,.

-Organo kolegiatuetan agertzea: 95 euro (laurogeita hamabost euro) organo kolegiatuetako bilkura bakoitzean agertzeagatik, urtean 1.459,36 euro, gehienez ere.

Zenbateko horiei legeak agindutako atxikipenak aplikatuko zaizkie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela eta.

Hurrengo urteetan, zenbateko hauek eguneratuko dira, Toki Administrazioko zuzendari nagusiak onesten duen urteroko ebazpenean xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.-Udalbatzako kideek kalte ordainak jasotzeko eskubidea dute karguan ari direla izandako gastuen ordain, betiere gastu horiek behar bezala baimendu badira eta agirien bidez justifikatzen badira. Baldintzak eta zenbatekoak, berriz, Nafarroako Administrazio Publikoetako langileentzat urtero ordainsarien alorrean ezartzen direnak izanen dira.

Zazpigarrena.-Zinegotzien ordainsariei buruzko erabaki honek 2014ko urtarrilaren 1etik aitzina hartuko du indarra.

Zortzigarrena.-Erabaki honen berri ematea Udalaren Kontu-hartzailetzari eta Toki Administrazioko Departamentuari.

Bederatzigarrena.-Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki

*Si por el Órgano competente no se aprobase otra subida, la retribución del Alcalde se actualizará anualmente con la subida del IPC.*

*Tercero.-Solicitar ante la Oficina Territorial de la Tesorería de la Seguridad Social la afiliación y/o alta en el Régimen correspondiente de la Seguridad Social, del Alcalde en la forma que legalmente corresponda.*

*Cuarto.-El presente acuerdo de dedicación exclusiva del Alcalde, entrará en vigor a partir del 1 de enero del 2014.*

*Quinto.-Determinar que los miembros de la Corporación que no tienen asignada dedicación alguna, percibirán las siguientes cantidades por asistencia a órganos colegiados:*

*-Asistencia a órganos colegiados: 95 euros (noventa y cinco euros) por cada asistencia a un órgano colegiado. Límite máximo anual a cobrar por cada concejal: 1.459,36 euros.*

*A dichas cantidades se les aplicarán las retenciones que procedan en concepto del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de conformidad con la legislación vigente.*

*Estas cantidades serán actualizadas para los años sucesivos a tenor de lo dispuesto en la Resolución anual que se apruebe por el Director General Administración Local.*

*Sexto.-Determinar que todos los miembros de la Corporación tendrán derecho a percibir indemnizaciones por los gastos efectivos ocasionados en el ejercicio de su cargo, siempre que sean debidamente autorizados y justificados documentalmente, en los términos y cuantías, que para cada año se establezca en materia retributiva, para el personal al servicio de la Administraciones Públicas de Navarra.*

*Séptimo.-Este acuerdo sobre remuneración a concejales entrará en vigor, a partir del 1 de enero de 2014.*

*Octavo.-Dar traslado del presente acuerdo a la Intervención Municipal y a Administración Local.*

*Noveno.-Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios de ayuntamiento."*

oholean argitaratzea"

## 4.- ALDERDI POPULARRARAREN MOZIOA: ETXEZ ETXE DIRU ESKATZEA/ Moción del Partido Popular: petición dinero en domicilios

Alkateak mozioa aurkeztu duen zinegotziari hitza ematen dio. Juan Antonio Extremera jaunak mozioaren testua irakurri du.

Mozioaren testua:

"Nafarroako Alderdi Popularrak, herritarrengan eta merkatariengan egin den ETAren inguruko estortsioa gaitzetsi dezan eskatzen dio Etxarri Aranazko udalari.

ARRAZOIEN AURKEZPENA

Eguberrien aurreko astean ETAren inguruko gutun bat bidali zitzaien Etxarri Aranazko herritarrei eta bertako komertzioeri talde terroristarentzako dirua eskatuz. Eguberri egunean, persona talde bera etxez – etxe eta merkatuetan pasatu ziren beraien "borondatea" eskatuz espetxetik ateratako terroristentzat.

Alderdi Popularraren iritzia, eta herriaren historia kontutan harturik, ekintza horiek herritarrengan beldurra sortzen du etaren presoei dirurik eman nahi ez dutenengan, eta gainera inguru hartako adierazpenekin adose ez dauden herritar ere badaude. Estortsioa egiteko modu berri bat da, izan ere, herritarrak mehatxaturik edo iziturik sentitzen dira edo senti daitezke.

Gaur mozioa gaitzesteko eskaria luzatzen dugu, izan ere, ekintza hauek herritar kopuru handi bati gogaikarriak iduritzen zaizkio, herriaren izen ona zikintzen dute eta enpresek bertan egin beharreko inbertsioak hurruntzen ditu.

Etxarri Aranazko udalari aurkeztutako Arrazoien aurkezpenenari buruzko textuari dagokionez, Etxarri Aranazko udalerriko taldeari hurrengo ALEGAZIOA aurkezten dio botazioa egin eta onestu daitezen:

1.Gogor gaitzesten dugu etxez - etxe ETA banda terroristari dirua emateko bidali diren gutunak herritarren "borondatea" eskaturik.

2.Dirua modu hontan biltzen aritu diren pertsona fisiko eta asoziazioeri, berriz behin ere gehiago egin ez dezaten eskatzen diogu.

3. Laguntza ekintza hauek gaitzesten ditugu, beraiek kartzelan talde terrorista batean sartuta egoteagaitik bait daude.

*El Sr Alcade da la palabra al concejal que ha presentado el escrito, D. Juan Antonio Extremera quien lee la moción:*

*Texto de la moción:*

*"El Partido Popular de Navarra insta al Ayuntamiento de Etxarri-Aranatz a condenar la extorsión por parte del entorno de ETA a vecinos y comerciantes del pueblo.*

*EXPOSICIÓN DE MOTIVOS*

*Una semana antes de Navidad el entorno de ETA remitió una carta a comerciantes y vecinos de Etxarri-Aranatz pidiendo dinero para los presos de la banda terrorista. El día de Nochebuena, ese mismo grupo de personas acudió a viviendas y comercios con el fin de "recoger la voluntad" para los terroristas encarcelados.*

*En opinión del Partido Popular, y teniendo en cuenta la historia del pueblo, estos actos causan miedo entre quienes no quieren aportar un solo euro a los presos etarras y que, además, no están de acuerdo con las declaraciones que se hacen desde su entorno. Se trata de una nueva forma de extorsionar, ya que los vecinos se sienten o se pueden sentir intimidados y coaccionados.*

*Pedimos hoy que se apruebe esta moción de condena, ya que estos hechos molestan a una parte importante de los vecinos, ensucian la imagen del pueblo y alejan la inversión de nuevas empresas en la zona.*

*En relación al texto recogido en la exposición de motivos, el Grupo Municipal Popular en el Ayuntamiento de Etxarri-Aranatz propone al Pleno del Ayuntamiento someter a votación la siguiente MOCIÓN para ser aprobada:*

*5. Condenamos rotundamente el envío de cartas pidiendo dinero y la recogida puerta por puerta de "la voluntad" para los presos de la banda terrorista ETA*

*6. Pedimos a las asociaciones y personas individuales que han estado recaudando dinero para los presos de este modo que no vuelvan a repetirlo jamás*

*7. Condenamos estos actos de apoyo a terroristas encarcelados por pertenecer a banda armada*

*8. Desde el ayuntamiento trabajaremos con firmeza para que estos actos de extorsión e*

4.Udalerritik gogor lan egingo dugu, estortsio eta intimidazio hauek berriz ere Etxarri Aranazen gertatu ez daitezen.”

Juan Antonio Extremera zinegotziak gehitu du mozioa sartu duela herriko bizilagun batzuk berarengana jo duelako, mehatxaturik edo izuturik sentitu direlako.

Ondoren alkateak esan dio ez dutela ezer esango, erantzuna izango duela Bilduk eta NABAIk aurkeztuko duten premiazko mozio batean.

Ondoren gaia bozkatu da, Alderdi Popularreko zinegotziak aldeko botoa eman du; eta Bildu eta Nabaiko zinegotziek, kontra bozkatu dute. Hori dela eta, UDALBATZAK EZ DU MOZIOA ONARTU

*intimidación no vuelvan a tener lugar en Etxarri-Aranatz”*

*Juan Antonio Extremera añade que ha presentado la moción porque vecinos del pueblo han acudido a él porque se han sentido intimidados.*

*El Sr. Alcalde añade que no tiene más que añadir y que su respuesta se dará una moción de urgencia presentada por Bildu y NABAI que se presentará al final de la sesión.*

*Se pasa a la votación: voto favorable del concejal del Partido Popular y votos en contra de los concejales de Bildu y Nabai. Por lo tanto, el PLENO ACUERDA NO APROBAR LA MOCIÓN*

## 5.- BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ABORTUAREN LEGE AURREPROIEKTUA ATZERA BOTATZEKO / Moción presentada por BILDU: retirada de anteproyecto de Ley del Aborto

Alkateak bere taldeak, BILDUk, aurkeztu duen idazkiaren berri eman du. Eta aurretik banatu denez, eztabaidarako txanda ireki du.

Juan Antonio Extremera dio arraroa egiten zaiola Bilduk emakumea defendatzea, zeren orain dela gutxi poztu baita emakumeak hil eta bortxatu dituzten presoak libre ateratzeagatik.

Haurra sortzen den lehenbiziko unetik bizitza da. Abortua oso zaila da, depresioak izaten dira, informazio falta dago. Sozialisten legea “giza-harategi” bat da. Berak uste du lege berriak haurra eta emakumearen bizitza erespetatzen dituela.

Ondoren gaia bozkatu da: Bildu eta Nabaiko zinegotziek alde bozkatu dute, eta Alderdi Popularreko zinegotziak kontra.

Hori dela eta, Udalbatzak mozioa onartzea erabaki du.

Mozioarren testua

“Abortuaren Lege aurreproiektua lehenbailehen atzera botatzeko exijitzen du Etxarri Aranatzeko BILDU udal taldeak. 2013-12- 30

Diputatuen Kontseiluak Estatu espainolean

*El Sr. Alcalde informa sobre el escrito presentado por su grupo BILDU y, al heber sido repartido con anterioridad, abre turno de debate.*

*Juan Antonio Extremera se extraña de que Bildu defienda a la mujer cuando hace poco se alegraba por la salida a la calle de asesinos y violadores de mujeres.*

*Considera que desde el primer momento de la concepción hay vida. El aborto es dificil, produce depresiones, hay falta de información a mujeres. La ley de los socialistas es una ley de carnceria humana.*

*Cree que la nueva ley respeta tanto la vida del niño como la de la mujer.*

*Acto seguido se procede a la votación (votos favorables de BILDU y NABAI y en contra del Partido Popular) siendo aprobada la moción por el pleno.*

*Texto de la moción*

*“El grupo mnicpal BILDU de Etxarri Aranatz exije la retirada inmediata del anteproyecto de Ley del aborto2013-12-30*

PPk onartutako abortuaren Lege aurreproiektuaren kontrako adierazpen instituzionala onartu du gaur:

Aurreko abenduaren 20an, Estatu espainolean PP buru den Ministroen Kontseiluak "Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako" Lege Organikoaren aurreproiektua onartu zuen, honekin egungo osasun sexual eta erreproduktiboaren eta borondatezko haurdunaldia eteteko 2/2010 LO eraldatuz. Dudarik gabe, azaldutako erreformak, Estatu espainolak ezarritako mugarri lotsagarrienetako bat protagonizatu du, emakumeen giza eskubide gisa onartutako eskubide sexual eta erreproduktiboen aurka (*).

Azaldutako erreformak, emakumeoi 30 urte baina gehiagotan borrokan lortzea kosta zitzaigun eskubide baten aurkako atentatu zuzen eta larria suposatu du: gure bizitza sexual eta erreproduktiboan erabakitzeko eskubidea izatea, tutela eta jarraipenik gabe. Erreforma honek hori kendu eta infantilizatu egiten gaitu emakumeok, abortatu ahal izateko, beste batzuekiko dependentzia ezarriz. Hala, emakumeon gorputzak Estatua eta medikuntzak interbenitutako erreproduzio hutsera murriztu ditu.

Honek emakumeok iraindu eta mespretxatzen gaitu gure borondatearen aurka amatasunera behartuz eta gainaera, muturreko baldintza krudeletan izatera: malformazioak dituzte haurrak izatera, hauei bitzitzeko duinak diren bizi baldintzak bermatu gabe, ez haientzat ezta ama izango diren emakume hoientzat; eta aurretik salatuak izan ez diren bortxaketen kasuan ama izatera ere.

Eta hau dena, PPren gobernuak zaintza behar duten pertsonei zituzten laguntza urriak deuseztatzen dizkietenean dator; izan helduak, adin txikikoak o dibertsitate funtzionala dute pertsonak, lan hau neurri handi batean gertuko familiako emakumeek egiten dutelarik, doako lanean, prekarietatean edo modu ikusezinean. Gainera, egiten dute jakinik bortxaketen gehiengoak ez dituztela emakumeek salatzen, eta kasu askotan, aitek alabei egindako bortxaketen kasuetan esaterako, hau salatzea edo bortxatzaile-aita honen baimena beharrezkoa izango dute. Eta bitartean, baldintza egokiak ukatzen dituzte hezkuntza afektibo-sexual parekide bat izateko eta indarkeria matxista bere aurpegi guztietan prebenitzeko.

Baina ez da hori bakarrik, garai hauetan MOEk ere onartzen du lege murritzaileek ez

*El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una declaración institucional en contra del anteproyecto de Ley del aborto aprobada por el PP en el Estado español:*

*El pasado 20 de diciembre. El Consejo de Ministros presidido por el PP en el Estado español aprobó el anteproyecto de Ley Orgánica denominada "de Protección de los Derechos del Concebido y de la Mujer Embarazada" que modifica la actual LO 2/2010 de salud sexual y reproductiva y de la interrupción voluntaria del embarazo. Sin duda alguna, la reforma anunciada constituye uno de los hitos más vergonzantes que ha protagonizado el Estado español contra los derechos sexuales y reproductivos reconocido como un derecho humano de las mujeres a proteger (*).*

*La reforma anunciada supone un atentado directo y gravísimo contra un derecho que las mujeres tardamos más de 30 años de lucha en conseguir: el derecho a decidir en lo que concierne a nuestra vida sexual y reproductiva sin ser tuteladas ni perseguidas. Esta reforma nos lo arrebata e infantiliza a las mujeres al depender de otros el permiso para abortar. Reduce así el cuerpo de las mujeres a meras reproductoras intervenidas por el Estado y el cuerpo médico.*

*Humilla y desprecia a las mujeres al obligarnos a ser madres contra nuestra voluntad y, además, a serlo en condiciones de extrema crueldad: a tener criaturas con malformaciones a las que no se pueden garantizar vidas dignas de ser vividas ni para ellas ni para las mujeres madres y a ser madres en supuestos de violación que no hayan sido denunciadas previamente.*

*Y todo ello se hace al tiempo que el Gobierno del PP elimina los escasos apoyos públicos para el cuidado de personas dependientes, sean menores, mayores o personas con diversidad funcional, un trabajo realizado en su inmensa mayoría por las mujeres del entorno familiar de modo gratuito, precario e invisible. Y se hace, ignorando deliberadamente que la mayoría de las violaciones no son denunciadas por las mujeres y que, en algunos casos, como las violaciones de padres a hijas, exigirán para interrumpir el embarazo, la denuncia de éste o el consentimiento de su violador-progenitor. Y, mientras, se niegan a crear las condiciones para garantizar una educación afectivo-sexual igualitaria y prevenir la violencia machista contra las mujeres en todas sus expresiones.*

*Pero no sólo eso, a estas alturas hasta la OMS reconoce que las leyes restrictivas no disminuyen el número de abortos, solo provocan que las mujeres que no tienen*

dituztela aborto kopuruak jaisten, soilik errekurtso ekonomiko gutxiago duten emakumeek egoera eta berme gutxiagorekin abortatzea dakarrela, hala, emakume izateagatik jasotako bazterketari klase edo egoera sozio-ekonomikoarena batzen zaiolarik. Gainera, aipatutako ustezko horiek hainbeste zailtzen dute abortu seguruak egin izaterainoko tramiteak, honek haurdunaldian berandu egitera ekarriko duela, emakumeon bizitzen gain arriskuak handituz.

Beraz, PPren gobernuak jaio ez denaren eskubideak defendatzen dituen lege erreforma bat proposatzen du, emakumeen giza eskubideen gainetik eta emakumeok bizitzea merezi duen bizitzak izatearen gainetik. Gainera, aurreko 2/2010 Lege Organikoa lortutako konsenso politico eta sozialari muzin eginez.

Emakumeen giza eskubideen aurkako atentatu honen aurrean, Etxarri Aranatzeko udalak:

- PPren Gobernuari aurkeztutako aurreproiektua lehenbailehen atzera botatzea exijitzen dio,

- Emakumeen doako abortua bermatuko duen arautze bati babes osoa adierazten dio, non emakumeek gorputzaren inguruan erabakitzeko eskubidea eta bere sexualitateaz gozatzeko eskubidea duten, erreprodukzioa alde batera utzita eta edozein hautabide sexual delarik.

-Etxarriko Osasun Zentroko, Emakumeon Arreta Zentroan eskubide hau bideratu eta bermatu ahal izatea eskatzen dugu, baita berriki, Nafar Gobernuaren eskutik, egon diren sexu hezitzailearen lan murrizketaren ondorioz, sexualitate hezkuntza egokiagoa bermatuko duen baliabideak garantizatzea, lanpostua osatzeak, horrek guztiontzako eskubide sexual eta erreproduktiboen heziketa eskubidea garantizatzea bideratuko duelako.

- Adierazten du, emakumeen eskubideak ez direla negoziatzen ezta gehiengo edo gutxiengoen jokoetan sartzen.

- Nafar Gobernuari desobedientzia aktiborako deia egiten dio. Ikuspuntu honetatik, eskatzen du dauden alternatiba eta estrategia guztiak topatzeko erreforma hau bête ez dadin, baita emakumeek libreki erabakitzeko eskubidea ziurtatuz, libreki abortatzeko aukera izan eta doain egiteko.

- Erreforma honi erantzun bateratu bat emateko mugimendu feminista eta emakumeen mugimenduak egindako lan itzelari

*recursos económicos lo hagan en peores condiciones, por lo que a la discriminación por razón de sexo se une la discriminación por clase o condición soci-económica. Además, dificulta de tal manera los trámites para la práctica de abortos seguros y equitativos en los cuestionados supuestos mencionados, que provocará que estos se realicen en periodos tardíos de la gestación, aumentando los riesgos para la vida de las mujeres asociados a éstos.*

*En definitiva, el Gobierno del PP propone una reforma que defiende los derechos del concebido y no nacido, a costa del desprecio de los derechos humanos de las mujeres y de la garantía de que las mujeres podamos vivir vidas que merezcan la pena ser vividas. Y lo hace, además, ignorando el consenso político y social alcanzado hasta la fecha y explicitado en la aprobación de la Ley Orgánica 2/2010.*

*Frente a este atentado contra los derechos humanos de las mujeres, el ayuntamiento de Etxarri Aranatz:*

*-. Exige al Gobierno del PP la retirada inmediata del anteproyecto presentado,*

*-. Explicita su apoyo a una legislación que garantice el aborto gratuito para todas las mujeres, en la que se asegure su derecho a decidir sobre su propio cuerpo y a disfrutar de su sexualidad, independientemente de la reproducción y desde cualquier alternativa sexual.*

*-Pedimos también que este derecho se lleve a cabo y se garantice desde el Centro de Atención a la Mujer del Centro de Salud de Etxarri Aranatz. Del mismo modo, es necesario, el derecho a una educación sexual básica para tod@s, que ha sido recientemente reducido, en los recortes empleados, en el puesto de la Educadora Sexual desde el Gobierno de Navarra, por lo tanto pedimos que se complete la jornada laboral para que se garantice el derecho a una educación sexual y reproductiva digna.*

*-. Señala que los derechos de las mujeres no se negocian, ni se someten al juego de mayorías y minorías.*

*-. Insta al Gobierno de Navarra a la desobediencia activa. Desde esta perspectiva, le instamos a la búsqueda de todas las alternativas y estrategias que permitan no acatar la reforma anunciada, así como a asegurar el derecho de las mujeres decidir libremente y a abortar de manera gratuita.*

*-. Reconoce el trabajo inmenso realizado por el movimiento feminista y de mujeres para articular una respuesta unitaria que frene la reforma anunciada. En ese sentido, este ayuntamiento se suma a las movilizaciones que desde éste se puedan articular y a cuantas*

errekonozimendua egiten dio. Zentzu honetan, foru gobernu hau mobilizazioetara batzen da, zeinek adierazitako erreforma zital hau gelditzeko estrategiak definitu eta artikulatuz eta behar diren babes denak emateko.

- Etxarri Aranatzeko biztanleria guztiari dei egiten diogu adierazitako erreforma honen aurkako oihu kolektibo hontara batzeko eta emakumeok haien gorputzengan erabakitzeko eskubide autonomoaren alde.

(*) Beijineko IV. Emakumeen Konferentzia Mundiala."

Iker Mariñelarena zinegotzia sartu da .

*estrategias se definan y apoyos se requieran con el objetivo de frenar la barbarie de la reforma anunciada.*

*-. Instamos a tod@s los Etxarriarras, a sumarse al grito colectivo de rechazo unánime a la reforma anunciada y de defensa del derecho de las mujeres a decidir libre y autónomamente sobre nuestros cuerpos.*

*(*)VI Conferencia Mundial sobre la mujer de Beijin"*

*Se incorpora a la sesión el concejal Iker Mariñelarena.*

## 6.- BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: D EREDUKO IRAKASLEEI BABESA EMATEKO / Moción presentada por BILDU de apoyo a profesores del modelo D

Alkateak bere taldeak, BILDUk, aurkeztu duen idazkiaren berri eman du.

Juan Antonio Extremerak esan du Alderdi Popularra D ereduaren alde dagoela, baina ez hezkuntza sektarioarekin; egia ez diren istorioekin, adibidez, Nafarroa Euskal Herri baten zatia dela.

Berak ez du ikusten Euskal Herria mapetan, baina ikastetxe batzutan badaude. Horrek esan nahi du ikastetxe batzutan hezkuntza sektarioa dela.

Gehitu du euskara odolez zikindu dela eta orain dela gutxi euskaldun batek esan ziola euskara odolez zikintzen ari dela eta ez zuela halakorik nahi, lotsa ematen ziola euskaraz hitz egitea

Ondoren gaia bozkatu da: Bildu eta Nabaiko zinegotziek alde bozkatu dute, eta Alderdi Popularreko zinegotziak kontra.

Hori dela eta, Udalbatzak erabaki du mozioa onartzea.

Mozioarren testua

"Mozio hau aurkezten dugu Nafarroan D ereduan ari diren irakasleei gure babesa eta estimua agertzeko.

Nafarroako Gobernuaren zentzugabekeria

*El Sr. Alcalde informa sobre el escrito presentado por su grupo BILDU y abre turno de debate.*

*Juan Antonio Extremera dice que el Partido Popular está a favor del modelo D, pero no con la educación sectaria: con historias que no son ciertas, como por ejemplo, Navarra con una tal Euskal Herria.*

*Él no ve Euskal Herria en el mapa, pero en algunos colegios hay mapas con Euskal Herria. Ello significa que en algunnos centros se educa de manera sectaria.*

*Ha añadido que el idioma se está manchando con sangre. Un euskaldun hace poco le dijo que le daba verngüenza hablar euskera porque se esta manachando de sangre y no lo quiere.*

*Acto seguido se procede a la votación (votos favorables de BILDU y NABAI y en contra del Partido Popular) siendo aprobada la moción por el pleno.*

*Texto de la moción*

*"Presentamos esta moción con el fin de mostrar nuestro apoyo y reconocimiento a los docentes del Modelo D en Navarra.*

*Un nuevo despropósito del Gobierno de Navarra: la criminalización de los y las*

berri bat: D ereduan ari diren irakasleen kriminalizazioa.

*docentes del modelo D.*

Hain zuzen ere, Nafarroa osoan D eredua aldarrikatzen ari den honetan eta matrikulazioak goranzko joera duelarik, Nafarroako Gobernuak, bere lehendakaria buru duela, Guardia Zibilaren ustezko txosten bat hartuta adierazpen iraingarriak egin ditu, D ereduko irakasleen izen ona desprestigiatzeko. Aipatu gainera D modelo honetan bakarrik ikasten ahal direla ziurtasunez Nafarroan dauden bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania.

*Justo cuando dicho modelo de estudios está siendo reivindicado para todo el territorio navarro y se halla en un grado ascendente de matriculación, el gobierno de Navarra, con su presidenta a la cabeza, en base a un supuesto informe de la Guardia Civil, ha hecho declaraciones calumniosas encaminadas a mancillar y desprestigiar al profesorado de dicho modelo, el único que, por otra parte, garantiza el conocimiento de las dos lenguas propias de Navarra, el euskara y el castellano.*

Erabat baztertzen dugu komunikabide batzuek hartu duten intoxikazioaren bidea, interesatuak baitaude gaur egun pil-pilean dauden gaiak estaltzeko, beseak beste; LOMCE inposatzea, Hezkuntza Departamenduaren murrizketak, sexu bereizketa indarrean daukaten zentruek eta hauekin dituzten hitzarmenen defentsa, (gehienak Opus Deikoak), eta abar.

*Rechazamos la intoxicación mediática que se está produciendo por parte de algunos medios que están muy interesados en desviar la atención de lo esencial, a saber: la imposición de la LOMCE, la barbarie de los recortes en Educación, la defensa de UPN de los conciertos educativos con los centros que segregan por sexo –la mayoría de ellos del OPUS DEI-, etc.*

Oroitarazi nahi dugu Hezkuntza Departamenduko ikuskaritza sailari dagokiola zerbitzu ona emateko ardura eta ez zaiola inoiz irakasle bateri inolako expedienterik ireki doktrinamendu saiakerarengatik eta ez dagola ere bakar bat ere martxan.

*Recordamos que la responsabilidad de velar por el buen servicio educativo corresponde a la Inspección del Departamento de Educación y que nunca se ha expedientado a ningún profesor/a de modelo D por intento de adoctrinamiento, ni hay ningún expediente en marcha por este motivo.*

Mahai gainean jartzea irakasleak gainbegiratu behar direla, beraien lan pedagogikoa egiterakoan, aberrazio juridiko eta moral bat da.

*Plantear que un sector del profesorado deba de ser vigilado en el desarrollo de su labor pedagógica es una aberración tanto jurídica como moral.*

Hezkuntza komunitate oso bateri egiten zaion erasoa da eta sorgin eraso honek 1936 -ko maisuen zerrenda beltzetara garamatza.

*Se trata de un ataque a toda la comunidad educativa y de una caza de brujas que nos retrae a las listas negras de maestros de 1936.*

Honengatik Udaletxe honek:

*Es por ello que este ayuntamiento:*

1.- Bere errekonozimendua eta babesa erakusten dio D ereduko irakaslegoari eta irmoki baztertzen du edozein kriminalizazio saiakera.

*1.-Muestra su respaldo, apoyo y reconocimiento al profesorado del Modelo D y rechaza firmemente todo intento de criminalización del mismo.*

2.- Salatzen du Barcinaren Gobernuko manipulazioa bere inguruko komunikabideen laguntzarekin.

*2.-Denunciar la manipulación que potencia el Gobierno de Barcina con la ayuda de sus medios de comunicación afines.*

3.- Bozketa honetan ateratzen den emaitza Nafarroako Gobernuari eta hedabideei bidaltzea adosten du."

*3.-Acuerda Remitir el resultado de esta votación al Gobierno de Navarra y a los medios de comunicación"*

**7.- BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA ARRAZIONALIZATZEKO ETA IRAUNARAZTEKO LEGEAREN EDUKIA ERREFUSATZEKO** / Moción presentada por BILDU en rechazo al contenido de la Ley de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local

Alkateak bere taldeak, BILDUk, aurkeztu duen idazkiaren berri eman du, eta eztabaidarako txanda ireki du. Inork ez du ezer esan.

Ondoren gaia bozkatu da: Bildu eta Nabaiko zinegotziek alde bozkatu dute, eta Alderdi Popularreko zinegotziak kontra.

Hori dela eta, Udalbatzak erabaki du mozioa onartzea.

Mozioarren testua

MOZIO hau aurkezten dugu, Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Lege Egitasmoaren eta Nafarroako Parlamentuan tokiko administrazioaren berrantolaketa aztertzeko osatu den PONENTZIAren aurrean eta Toki Erakundeetan izanen duten eraginaz jabeturik:

Mozio proposamena:

1.- Udal honek Ministro Kontseiluak 2013ko uztailaren 26an onartu zuen Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Lege Egitasmoaren edukia errefusatzen du.

2.- Udal honek Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Lege Egitasmoak jasotzen dituen neurriak Foru Lurraldean aplikatzearen aurka dagoela adierazten du.

3.- Udal honek Tokiko erakundetzea bere osotasunean defendatu dezala exijitzen dio Nafarroako Gobernuari, eta lege honek Lurraldeko Kontzeju eta Udalen eskumen eta funtzionamenduan inolako ondoriorik izan ez dezan konpromisoa hartu dezala.

4.- Udal hau bereziki kezkatuta agertzen da Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Legea Toki Erakunde txikien gain

*El Sr. Alcalde informa sobre el escrito presentado por su grupo BILDU y abre turno de debate no habiendo comentario alguno.*

*Acto seguido se procede a la votación (votos favorables de BILDU y NABAI y en contra del Partido Popular) siendo aprobada la moción por el pleno.*

*Texto de la moción*

*"Los Grupos abajo firmantes presentan la siguiente propuesta ante la LEY DE RACIONALIZACIÓN Y SOSTENIBILIDAD DE LA ADMINISTRACIÓN LOCAL y la PONENCIA PARLAMENTARIA SOBRE LA REORGANIZACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN LOCAL DE NAVARRA y su incidencia en las Entidades Locales:*

*Propuesta de MOCIÓN*

*1.-Este Ayuntamiento rechaza el contenido del Proyecto de Ley para la Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local aprobado en el Consejo de Ministros en fecha 26 de julio de 2013.*

*2.- Este Ayuntamiento se muestra contraria a la aplicación en nuestro Territorio, de las disposiciones contenidas en el proyecto de Ley para la Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local.*

*3.- Este Ayuntamiento defenderá el entramado institucional municipal y las entidades locales, y exigen al Gobierno de Navarra que haga lo mismo y se comprometa a que la misma no tenga ninguna consecuencia en la naturaleza, competencias y funcionamiento de los Concejos y Ayuntamientos.*

*4.- Este Ayuntamiento se muestra especialmente preocupado por el riesgo que corren las Entidades Locales menores ante la posible aplicación de la Ley para la Racionalización y Sostenibilidad de la*

aplikatua izateko arrisku berezia dagoelakoz, eta horregatik Estatuko administrazioari zein Erkidegoko Administrazioari hemengo udalerrietan ez aplikatzea exijitzen du. Bide beretik, Toki Erakunde txikiak lege honen aplikazioaren ondorioetatik babesteko bere esku dauden bitarteko guztiak erabiltzea eskatzen dio Foru Gobernuari.

